Bilboko Udalaren Gazteria eta Kirol Sailak **BILBAO GAZTE BALIOAK MARTXAN sarien bigarren edizioaren** deialdia luzatu du. Horren bidez, gizarte-ingurunea hobetzeko xedea duten gazteen ekimenak ezagutzera eman nahi ditu.

Bigarren edizio honetan, NBEren 2030erako Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuetan ezarritako jomugak lortzen lagunduko duten ideiak sustatu nahi ditugu. Hala, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntuen arabera, **Bilbao hiri iraunkorragoa** izatea lortuko dugu.




## 2019 DEIALDIAREN OINARRIAK

**Lehenengoa: deialdiaren helburuak**

- Gizartearen beharrizanen mesedetan, gazteen sormen, konpromiso eta ahalegintzeko gaitasuna sustatzea.
- Gazteen ikuspegiaren arabera Bilbo eraikitzeko modu iraunkorragoa bultzatzea, gizarteari zein ingurumenari lotutako alderdietan.
- Gazteei hainbat arlotako ekimen edo proiektuak gauzatzeko aukera ematea: gizarte arloko gaiak, ekonomia, zientziak, digitala, teknologia...

**Bigarrena: Bila gabiltzan ekimen edo proiektuak.** Ideia edo proiektu berritzaileak bilatzen gabiltza, **NBEren 2030erako Agenda osatzen duten GARAPEN IRAUNKORRARI BURUZKO 17 HELBURUEtako** batekin edo batzuekin lotuta dauden gizarte arloko eskariei erantzuna emateko.

El Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao convoca la **segunda edición** de los **premios BILBAO GAZTE BALIOAK MARTXAN** para dar a conocer y apoyar las iniciativas de los y de las jóvenes que persiguen mejorar su entorno social.

En esta segunda edición queremos apoyar ideas dirigidas a la consecución de las metas que señalan los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030 de la ONU, colaborando con ello al desarrollo de un **Bilbao más sostenible** tanto desde el punto de vista social, como medioambiental.




## BASES DE LA CONVOCATORIA 2019

**Primera: objetivos de la convocatoria**

- Fomentar la creatividad, el compromiso y la capacidad de esfuerzo de la juventud puestos al servicio de las demandas sociales,
- Impulsar, desde la vision de los y de las jóvenes, la construcción de un Bilbao más sostenible, tanto desde el aspectos social, como medioambiental.
- Dar la oportunidad a jóvenes que tengan una iniciativa o proyecto social, artístico, cultural, ecológico, económico, científico, digital, tecnológico, … de hacerlo realidad.

**Segunda: qué iniciativas o proyectos estamos buscando**

Estamos buscando ideas o proyectos innovadores que den respuestas a demandas sociales vinculadas con alguno o algunos de los **17 OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE que integran la Agenda 2030 de la Organización de Naciones Unidas**

Ekimenak/proiektuak:

- Bilboren barruan burutu behar izango dira.
- Epaimahaiak aukeratutako ideiak 2019ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu behar izango dira eta Bilbon eragin nabaria izan. Data horretan burutzen amaituko ez dituzten proiektuak aurkeztu eta aukeratu ahal izango dira, baina haren faseetakoren batek gutxienez gauzatuta egon behar izango du, emaitza neurgarriak aurkezteko eduki nahikoarekin.
- Hura burutzeko bideragarritasuna behar den eran azaldu behar da.

**Hirugarrena: Deialdia nori zuzentzen zaion**

Deialdia 1989ko urtarrilaren lehena eta 2003ko abenduaren 31 artean jaio diren gazteei zuzenduta dago, baldin eta kategoria bakoitzeko berariazko baldintzak betetzen badituzte.
Proiektuak hurrengo **kategorietako** batera aurkeztu behar izango dira:

**A. Unibertsitate graduko edo goi-mailako zikloetako ikasleak:**
- Bilbon dauden unibertsitate edo ikastetxeetan unibertsitateko gradua edo masterra nahiz goi-mailako zikloa ikasten dabiltzanek aurkeztu ahal izango dute hautagaitza. Ikasle batek edo ikasle-talde batek (gehienez 4) aurkeztu ahal izango dute proiektua. Horretarako, haien arteko ordezkaria izendatu behar izango dute hura burutzeko prozesu osoan Udalarekin harremanetan egoteko. Ikasleek gradu bera edo desberdinak ikasi ahal izango dituzte, haietako inork ezin izango du lehen aipatutako adina gainditu eta, haietako batek, gutxienez, Bilbon erroldatuta egon behar izango du.
- Unibertsitateetako eta ikastetxeetako ikasleez osatutako erakundeek ere izena eman dezakete. Horretarako, legez eratuta egon behar dute eta haien jarduerak Bilbon agerikoa izan behar du. Erakunde hauetako kideek adinari buruz lehen aipatutako baldintzak ere bete behar izango dituzte.

Las iniciativas/proyectos**:**

- Deben desarrollarse en el ámbito geográfico de Bilbao.
- Las ideas seleccionadas por el Jurado deberán ser realizadas con anterioridad al 31.12.19 y deberán tener un resultado tangible con impacto en Bilbao. Se podrán presentar y seleccionar proyectos cuya realización total no finalice en esa fecha, aunque si lo deberá hacer alguna de sus fases con identidad suficiente para presentar resultados medibles.
- La viabilidad de su realización deberá estar suficientemente justificada

**Tercera: a quien va dirigida la convocatoria**

La convocatoria está dirigida a personas jóvenes nacidas entre 1 de enero de 1989 y el 31 de diciembre de 2003 y entidades que reúnan los requisitos específicos de cada categoría.
Los proyectos deberán ser presentados a alguna de las siguientes **categorías:**

**A. Estudiantes de grado universitario o ciclos de grado superior**:
- Podrán presentarse a esta categoría alumnos o alumnas que estén cursando estudios de grado o máster universitario o ciclo de grado superior en alguno de los centros universitarios o académicos presentes en Bilbao. El proyecto podrá ser presentado por un/a estudiante o por un grupo de estudiantes (máximo 4) que deberán nombrar de entre ellos/as a un/a representante que actuará como tal ante el Ayuntamiento durante todo el proceso. Los/as estudiantes podrán cursar el mismo o diferente grado o curso, ninguno/a deberá superar la edad antes referida y, al menos, uno/a de ellos/as deberá estar empadronado/a en Bilbao.
- Podrán también presentarse entidades constituidas por alumnado de los centros universitarios o académicos (asociaciones de estudiantes, junior empresas o similares) siempre que estén legalmente constituidas, en activo y presentes en Bilbao. Los y las miembros de estas entidades deberán también reunir los requisitos de edad antes indicados.

**B. Gazteak eta gazte-elkarteak:** Proiektua honako hauek aurkeztu dezakete:

- Bilbon erroldatuta dagoen pertsona bat edo pertsona-talde bat (gehienez 4). Azken kasu honetan, prozesu osoan Udalarekin harremanetan egongo den ordezkari bat izendatu behar izango dute. Guztiek bete behar dituzte adinari buruzko baldintzak eta haietako batek, gutxienez, Bilbon erroldatuta egon behar du.
- Gazte-erakunde bat (Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda dagoen irabazi asmorik gabeko elkartea). Gehienbat adinari buruzko baldintzak betetzen dituzten gazteez (haien kide guztien %60 gutxienez) osatuta egon behar du. Erakunde bakoitzak ordezkari bana izendatu behar izango du, Administrazioarekin harremanetan jartzeko.

**Laugarrena: Zertan lagunduko dizugun**

Aukeratutako proiektuak diru-kopuru jakin batez sarituko dituzte, horiek burutzea sustatzeko.
Kategoria bakoitzean, gehienez, 5 ideia-proiektu hautatuko dira eta horietako bakoitzak 3.000 euroko sari bana jasoko du.

Sariek bakoitzari dagokion zerga-atxikipena izango dute.

Kategorietako bat saria esleitu barik geratuz gero, saritzeko zuzkitutako diru-kopurua beste kategorian aurkeztutako ideia edo proiektuak bultzatzera zuzendu daiteke. Edonola ere, Udalak beretzat gordeko du sariak ez esleitzeko aukera, baldin eta, epaimahaikideen ustez, aurkeztutako proposamenetan kalitate, originaltasun, bideragarritasun edo eraginaren aldetik maila nahikorik ez badago.

**Bosgarrena: Noiz eta zelan aurkeztu zure proiektua**

Izena emateko www.bilbaogazte.bilbao.eus webgunean eskuratu daitekeen eskabidea betez. Izena emateko eskabidearekin batera proiektua aurkezteko bideoa bidali ahal

**B. Colectivos y/o personas jóvenes:** El proyecto podrá ser presentado por:

- Una persona que cumpla los requisitos de edad y este empadronada en Bilbao o por un grupo de personas (máximo 4) que deberán nombrar de entre ellos/as a un/a representante que actuará como tal ante el Ayuntamiento durante todo el proceso. Todos y todas deberán cumplir los requisitos de edad y, al menos, una de ellas deberá estar empadronada en Bilbao.
- Una entidad juvenil (asociación sin ánimo de lucro inscrita con tal carácter en el Registro municipal de Asociaciones) o entidad mercantil domiciliada en Bilbao e integrada mayoritariamente por jóvenes que cumplan los requisitos de edad más del 60% de sus miembros. Cada una de estas entidades deberán nombrar a un/a representante que actuará como tal ante la Administración.

**Cuarta: ¿Cómo te apoyamos?**

Los proyectos seleccionados recibirán una dotación económica en concepto de premio, como apoyo para su ejecución.
En cada una de las categorías se seleccionarán hasta un máximo de 5 ideas/proyectos que recibirán un premio unitario de 3.000 €.

Los premios tendrán la retención fiscal que en su caso proceda.

Si en alguna de las categorías quedaran premios desiertos, la dotación económica podría ir destinada a premiar ideas o proyectos presentados en la otra. En cualquier caso, el Ayuntamiento se reserva la posibilidad de declarar premios desiertos sin asignación posterior si las propuestas no logran un determinado nivel de calidad, originalidad, viabilidad o impacto, a juicio del jurado.

**Quinta: cómo y cuándo puedes presentar tu proyecto?**

Cumplimentando el formulario de inscripción que está disponible en www.bilbaogazte.bilbao.eus. Junto al formulario de inscripción podrá enviarse también un video de presentación del

izango da, gehienez 3 minutukoa, azalpena biribiltzeko.

Eskaerak betetzeko epea 20 lanegunetakoa izango da. Noiztik: deialdiaren iragarpena BAOn argitaratuko den egunaren biharamunetik. Noiz arte: epearen azken eguneko 23:59raino.
Proposamenak helbide elektroniko honetara bidali behar dira:
balioakmartxan@bilbao.eus

**Seigarrena: Hautaketa-prozesua**

- **Lehenengo Fasea:** Gazteria Zerbitzuko langileez osatutako teknikari-talde batek aztertuko ditu proposamenak. Horretarako, deialdiaren baldintzak eta proposamenaren bideragarritasuna betetzen diren egiaztatuko du.

Fase honetan, Gazteria eta Kirol Sailak interesdunengana jo ahal izango du eskabidearen datuak zehaztu, argitu edo osatzeko. Gauza bera egin ahal izango du ideiaren edo proiektuaren zenbait alderdi behar den eran azalduta ez daudenean.
Teknikari-taldeak ekimena edo/eta haren aurrekontua alderdi jakin batean edo batzuetan egokitzea eskatu ahal izango die ekimenaren sustatzaileei. Gainera, hasieran hautatutako kategoria aldatzea proposatu ahal izango du. Edonola ere, gizabanako edo erakunde sustatzaileek erabaki ahal izango dute gomendioak onartzea ala ez eta, hala badagokio, haien proposamenaren edo ideiaren edukia egokitzea.

- **Bigarren fasea:** lehenengo fasea gainditzen duten ideia edo proiektuak Epaimahaikideengana bidaliko dira, beraiek kategoria bietako irabazleak nortzuk diren ebatzi dezaten.

Bigarren fase honetan baloratutako ideien artean hasiera batean saritu ez direnak puntuazioaren arabera sailkatuko dira, erreserba gisa geratzeko. Hala, saridunen batek lehiaketan parte hartzeari uzten badio edo epaimahaiak lehiaketaz kanpo uzten badu, ordezko erreserba irabazle gisa izendatuko lukete.
Hiru epaimahaikide egongo dira:

- Lehenengoa Gazteria eta Kirol

proyecto con una duración no superior a 3 minutos como complemento explicativo.

El plazo de presentación de solicitudes será de 20 días hábiles contados a partir del día siguiente a la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOB, finalizando a las 23:59 horas del último día de plazo.
Las solicitudes se enviarán a la la dirección balioakmartxan@bilbao.eus

**Sexta: Proceso de selección**

- **Primera Fase:** las iniciativas serán analizadas por un equipo técnico integrado por personal del Servicio de Juventud, que comprobará tanto el cumplimiento de los requisitos de la convocatoria, como su viabilidad.

En esta fase el Área de Juventud y Deporte podrá dirigirse a los y las interesadas a fin de concretar, aclarar o completar los datos de la solicitud o aspectos determinados de la idea o proyecto que no parecieran suficientemente claros en el documento de solicitud
El equipo técnico podrá proponer a los y las promotoras que reajusten su iniciativa y/o presupuesto en algún aspecto o aspectos. También podrá proponer el cambio en la categoría inicialmente seleccionada. En todo caso, será decisión de la entidad o personas promotoras aceptar o no las recomendaciones y reajustar en su caso los términos de su propuesta o idea.

- **Segunda Fase**: las ideas o proyectos que superen la primera fase serán elevadas a la consideración del Jurado, quien seleccionará las ideas ganadoras en las dos categorías.

Las ideas valoradas en esta segunda fase que no hubieran sido inicialmente premiadas serán ordenadas según puntuación, quedando en reserva ante posibles abandonos o descalificaciones de las ideas inicialmente seleccionadas.
El Jurado estará integrado por tres personas:

- Una en representación del Área de Juventud y Deporte

Sailaren izenean.

- Bigarrena, Bilbao Balioen Hiria udal-proiektua idatzi zuen Deustuko Unibertsitateko taldearen izenean.
- Hirugarrena, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) izenean.

Epaimahaiaren ebazpena eta sarien banaketa jendaurrekoa izango da.

Sariak epaimahaikideen ebazpenaren ondoren banatuko dira.

**Zazpigarrena: Baloratzeko irizpideak**

- Sormena, originaltasuna eta dakarten berrikuntza.
- Proiektua edo ideia gauzatzeak gizartean izango duen eragina edo gizartearentzat duten interesa.
- Sustatzaileen lidergoa ekimena diseinatzeko eta gauzatzeko prozesuari dagokionez.
- Ideia diseinatzeko eta gauzatzeko gizarte arloko eragileek izandako parte-hartzea.
- Proiektuaren kalitate teknikoa.
- Proiektuaren iraunkortasuna.

**Zortzigarrena: Irabazleak diren gizabanakoek/erakundeek aurkeztu beharreko dokumentuak**

- Hartzekodunen fitxa (Udalak emandako ereduaren araberakoa).
- IFK
- Saria ordainduko den Bankuko kontuaren titulartasunari buruzko ziurtagiria edo, aukeran, titulartasuna kreditatzeko balio duen edozein dokumentu.
- Dirulaguntzei buruzko Legearen 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan adierazitako debekuen barruan ez daudela adierazten duen erantzukizunpeko aitorpen izenpetua. Gazteria eta Kirol Sailak dagokion eredua emango du.
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren beharkizunak ordainduta dituela adierazten duen erantzukizunpeko aitorpen izenpetua.
- Elkartea, gehienbat, adinari buruzko baldintzak betetzen dituzten gazteez osatuta dagoela adierazteko erantzukizunpeko aitorpen izenpetua (adierazi ehunekoa).

- Una en representación del equipo redactor del proyecto municipal Bilbao Balioen Hiria, de la Universidad de Deusto
- Una en representación de Euskadiko Gazteriaren Kontseilua- Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK)

La comunicación del fallo del Jurado y la entrega de los premios será pública

El abono de los premios se realizará tras la resolución del Jurado.

**Séptima: Criterios de valoración**

- Su creatividad, originalidad y carácter innovador.
- Impacto e interés social de la realización del proyecto o idea
- El liderazgo de los y las jóvenes promotoras en el proceso de diseño y ejecución de la iniciativa
- Participación del tejido social en el diseño de la idea y/o en su realización
- Calidad técnica del proyecto
- Sostenibilidad del proyecto.

**Octava: Documentación a presentar por las personas/entidades que resulten ganadoras**

- Ficha de acreedores (conforme al modelo que le será facilitado por el Ayuntamiento),
- CIF
- Certificado de titularidad de la cuenta bancaria donde se va a efectuar el abono del premio, o en su defecto, cualquier otro documento que acredite la titularidad de la misma.
- Declaración responsable firmada de no estar incursos en prohibiciones del art. 13 de la Ley de Subvenciones y el art. 24.2 de la ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres. El Área de Juventud y Deporte facilitara modelo.
- Declaración responsable firmada de estar al corriente de obligaciones de Hacienda Foral y Seguridad Social.
- Declaración responsable firmada por quien ostente la representación de la entidad de estar integrada mayoritariamente por jóvenes que cumplen los requisitos de edad (indicar %)

**Bederatzigarrena: Lehiakideen eta saridunen beharkizunak**

- Lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztearekin batera, deialdiaren oinarriak onartzen dira.
- Ekimena diseinatzea, garatzea eta gauzatzea sustatzaileen erantzukizuna da.
- Gizabanako eta erakunde irabazleek proiektuan adierazitako moduan gauzatu behar izango dute haien ideia edo proiektua. Gazteria eta Kirol Sailak justifikatu eta baimendu behar izango du edozein aldaketa. Proiektua ez gauzatzeak, modu okerrean burutzeak edo hura aldatzeak saria itzultzera behartzen ditu saridunak. Bilboko Udalak sari osoa edo haren zati bat itzultzea eskatu ahal izango du.
- Bilboko Udalak Epaimahaiaren ebazpena jakinarazteko, sariak banatzeko edo/eta egindako proiektuak aurkezteko antolatutako jendaurreko ekitaldietan parte hartu behar izango dute, horrela ez egiteko ondo justifikatutako arrazoirik ez badago. Antolatutako jarduera guztiak Bilboren barruan burutuko dira.
- Proiektua egin ondoren, saritutako erakunde eta gizabanakoek haren burutzapena azaltzeko txostena aurkeztu behar izango dio Gazteria eta Kirol Sailari. Horrekin batera, emaitzen balorapena ere aurkeztuko dute, ezarritako helburuen betetze-maila eta gizartean izandako eragina ebaluatuta. Txosten horretan, prozesuaren fasei buruzko argazkiak eta (2 edo 3 minutuko) bideo bat egon behar dute, parte-hartzaileen balorazioa jasoz.
- Lehiaketan parte-hartzeak txostena, argazkia eta bideoak zabaltzeko eskubideak Bilboko Udalari lagatzea dakar. Honek bere webguneetan, sare sozialetan eta, orokorrean, ideiak, sariak eta programa zabaltzeko asmoz egoki deritzon beste edozein baliabidetan erabili ahal izango ditu.

**Novena**: **Obligaciones de los y las concursantes y premiados/as**

- La presentación de la solicitud de participación en el concurso lleva implícita la aceptación de las bases de la convocatoria.
- El diseño, desarrollo y ejecución de la iniciativa se realizará bajo la responsabilidad de los y las promotores/as.
- Las personas y entidades ganadoras vendrán obligadas a ejecutar la idea o proyecto de la forma en que hubiera sido proyectada. Cualquier modificación deberá ser justificada y autorizada por el Área de Juventud y Deporte. La no ejecución del proyecto o su ejecución defectuosa o modificada sin autorización obliga a los y las concursantes a la devolución del premio. El Ayuntamiento de Bilbao podrá exigir el reintegro total o parcial del premio.
- Participar, salvo causa debidamente justificada, en los actos públicos organizados por el Ayuntamiento de Bilbao con motivo de la comunicación del fallo del Jurado, la entrega de los premios y/o la presentación de los proyectos realizados. Cualquier acto organizado se desarrollará en el término municipal de Bilbao.
- Tras la ejecución del proyecto, las entidades o personas premiadas deberán presentar ante el Área de Juventud y Deporte una memoria descriptiva del proceso de realización, así como de la valoración de los resultados, evaluando el grado de cumplimiento de los objetivos planteados y el impacto social producido. La memoria deberá contener fotografías y un video (de 2 a 3 minutos de duración) relativos a las diferentes fases del proceso y de su valoración por parte de los participantes.
- La inscripción en el concurso conlleva la cesión de los derechos de difusión de la memoria, las fotografías y videos para su uso por parte del Ayuntamiento de Bilbao, tanto en sus webs, como redes sociales o cualquier otro medio que considere de interés para la difusión de las ideas, de los premios y del programa en su conjunto.

**Hamargarrena:** Oinarriotan aurreikusi ez denari dagokionez, ordezko araudi gisa, Bilboko Udalak eta bere mendeko erakundeek deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzeari buruz 2016ko ekainaren 30ean onartutako

**Décima:** En lo no previsto en estas Bases, se regirá, con carácter supletorio, la Ordenanza General reguladora de las bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de

Ordenantza Nagusia (2016ko uztailaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 138. zenbakian argitaratua) erabiliko da.

derecho público, aprobada en fecha 30 de junio de 2016 por el Excmo. Ayuntamiento Pleno y publicada en el BOB núm.138, de 20 de julio de 2016.